

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Ostirala, 2011eko urtarrilaren 28a. VIII. urtea. 2.165. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

## Tolosaldean eta Leitzaldean langileen gehiengoak grebarekin bat egin du

Espainiako Gobernuak adostu duen pentsioen erreformari ezezkoa eman dio kalean langileriak; ehunka lagunek hartu dute parte Tolosako eta Leitzako manifestazioetan

LAB eta ELA sindikatuetak eskualdeko ordezkariak, Mari Mujika eta Egoitz Iturbe, «oso gustura» agertu dira langileek eman duten erantzunarekin **o2-3**



Tolosaldeko langile eta ikasle ugari manifestazioa egin zuten Tolosako kaleetan zehar. I.GARCIA

### Aresoko inauteriak gaur hasiko dira eta hiru egunetako egitaraua osatu dute

Eskolako karroza piratez beterik aterako da, ondoren merienda egingo dute Pake Toki elkartearen eta gauetan, afariaren ostean Mus Txapelketa antolatuko dute **o7**

### Pello Odriozola tolosarrak 23 urte betetzen ditu gaur kartzelan

Egoera hau salatzen manifestazioa egingo dute bihar Tolosan, 19:00etan; gaur hileko azken ostirala dela eta elkarretaratzeko ere izango dira **o6**

### Konfiantzan, Ikastola



**Aurrematrikula**  
Epea  
Urtarrilaren 31tik Otsailaren 11ra  
Ordutegia  
09:00-12:30 / 15:00-18:00

**Anoetako Herri Ikastola**  
943 65 29 32  
[www.anoetakoherriikastola.net](http://www.anoetakoherriikastola.net)

**Irurako Ikastola**  
943 69 43 74  
[www.irurakolikastola.net](http://www.irurakolikastola.net)

**Jesusen Bihotza Ikastola (Villabona/Zizurkil)**  
943 69 23 21  
[www.jesusenbihotzaikastola.com](http://www.jesusenbihotzaikastola.com)

**Laskorain Ikastola (Tolosa)**  
943 69 71 22  
[www.laskorainkastola.net](http://www.laskorainkastola.net)

**Tolosako Inmakulada Ikastetxea**  
943 67 36 29  
[www.inmakuladatolosa.com](http://www.inmakuladatolosa.com)

**Uzturpe Ikastola (Obarra)**  
943 67 12 99  
[www.uzturpe.net](http://www.uzturpe.net)



Goizean Iruñeko manifestazioan parte hartu ostean, arratsaldean Areso eta Leitzako herritarrek Leitzan egindakoan hartu zuten parte. E. MAIZ

# Eskubide murrizketa eta pentsioen erreformaren aurka, kalera irten dira

Eskualdean grebak izan duen erantzunarekin sindikatuak «gustura» agertu dira

**A. Imaz-E. Maiz**

Atzorako deitutako greba orokorrak, Tolosaldeko eta Leitzaldeko egunerokotasuna gelditzea lortu zuten. Euskal Herriko gehiengo sindikalak, ELA, LAB, EHNE,

HIRU eta STEE-EILASEk, deitutako greba orokorrarekin hainbat eta hainbat langilek bat egin zuten. Kaleak eta enpresa asko hutsik ikus zitezkeen. Beste batzuek ordea, ateak itxita bada ere, lanera joateko hautua egin zuten.

Goizean goiz hasi ziren lanean piketeak. Eta eskualdeko enpresa eta komertzio nagusienetatik igaroz ziren. Ertzaintzak ere agertu nahi izan zuen eta liskarrak ere izan ziren pikete eta hainbat ertzain artean.

Ondoren, Donostiarako bidea hartu zuten Tolosaldekoek. Arratsaldean, Tolosaldeko Trianguloa plazan mila lagun inguru elkartu ziren eta kaleak zeharkatuz manifestazioa egin zuten.

Nafarroan ere oihartzun handia izan zuen grebak eta Leitzako kale eta enpresetan nabari zitezkeen. Hauek ere, goizean Iruñeko manifestaziora joateko deia zuten eta arratsaldean Leitzako kaleetan barrena egin zuten manifestazioa. Herritar ugari elkartu

ziren onartu nahi duten erreformaren aurka egiteko.

Gazteak, helduak, emakumeak, gizonak... guztiak ukitzen ditu Espainiako Gobernuak onartu nahi duen pentsioen erreformak.

**Aurreakordioa**

CCOO eta UGT Espainiako Gobernuarekin aurreakordio batera iritsi ziren atzo. Euskal sindikatuak, ordea, hauen lana ez dute begi onez ikusi. Sindikatuen us-

tez, «dangileria traizionatu» dute CCOO eta UGTk, eta EAJri ere zuzendu zitzaizkien, «gizarteari entzuteko eta pentsioen erreformari baiezkota ez emateko» eskatuz.

Eskualdean zerrenda luzea izan da grebari babesa adierazi diotenena. Besteak beste, etorkinek ere, Anitzak herri ekimenaren bidez, euren babesa azaldu nahi izan zuten atzokoan euskal gehiengo sindikalak deitutako greba orokorrari.



## saridunak

### ① Otordua

Tolosaldeko **Isastegi Sagardotegian** bi pertsonentzako otordua

Aldaba Txiki auzoa • TOLOSA  
Tel.: 943 652 964 • Faxa: 943 655 632  
isastegi@isastegi.com • www.isastegi.com



• Pedro Mari Olano (Tolosa)

### ② Sarrera parea

Uzturpe Ikastolaren Kultur Astearen baitan **Alurr** dantza taldeak eskainiko duen **Oinaz** ikuskizunerako sarrera pare

Urtarrilak 28, Ostirala  
22:00etan Ibarra Belabieta Kiroledegian



• Egarrri Taberna (Zizurkil)

### ③ Sarrera pare

**Pirritx, Porrotx eta Marimototxek** eskainiko duten **Ongi etorri Pupu eta Lore** ikuskizunerako sarrera pare

Otsailak 4, Ostirala  
18:00etan Ibarra Belabieta Kiroledegian



• Ixiar Arratibel (Ibarra)

### ④ 2 sarrera pare

**La Guinda** taldeak eskainiko duen **Echale Guindas** kontzerturako bi sarrera pare

Otsailak 4, Ostirala  
20:30ean Tolosaldeko Leidorren



• Maixa Zubeldia (Irura)

Saridunak sarrerak eskuratzeko ① HITZA jarriko da harremanetan ② HITZAko bulegotik pasa ③④ Leihatilan bertan

harpidedunen **TXOKOA hitza** info

## ↓ CCOO, UGT eta Gobernuak atzo hitzartutako aurrekordioaren hainbat puntu

- **65 edo 67 urterekin erretiroa hartzeko.** 65 urterekin jubilatuta ahal izateko, 38 urte eta erdi kotizatu beharko da. Aldiz, 67 urterekin jubilatuzeko, 37 urte kotizatu beharko dira.
- **Bekadunak.** Hauen kasuan, gehienez ere bi urteko kotizazioa izango dute.
- **Emakumeak.** Amatasun edo aitatasun baje kasuan (batez ere emakumeak), haur bakoitzeko 9 hilabeteko kotizazioa

izango luke, gehienez ere bi urte artekoa izanik. Ez da emakume guztientzat izango, soilik haurrak edukitzeagatik lanean etealdia hartzen dutenentzat.

- **Aurretiko erretiroa 63 urterekin.** Orain arte 61 urterekin bazen ere, 63ra atzeratuko dute.
- **Pentsioa izateko kotizazio urteak.** Lehen azken 15 urteen gainean egiten bazen pentsioa izateko kalkula, orain 25 urtetara atzeratu nahi dute.



Villabonako kaleak ia hutsik ikus zitezkeen. A. IMAZ



Ertzantzak piketeen lana oztopatzera joan nahi izan zuen. JON ALEJO

Mari Mujika • Tolosaldeko LAB sindikatuko ordezkarria

## «Inposaketa iruditzen zaigu pentsioen erreforma»

Goizean pikete informatiboetan parte hartu ondoren, greba orokorraren inguruko lehen balantzea egin zuen LABeko ordezkarriak.

### Zein da goizean ikusi duzun argazkia?

Batzarretako emaitzak oso onak izan direnez, bagenekien erantzuna ere ona izango zela. Piketeetan ez dugu gauza handiegirik egin behar izan, ondorioz. Baina ohitura den bezala, 05:00etan elkartu eta Zizurkilera joan gara. Oriako papeleran jendeari kalera ateratzeko gonbitea egin diegu. Hortik Apatta Errekako poligonora joan gara. Voith Gorostidiko bulegoetako langileak aurkitu ditugu, sekula santan greba egiten ez duten langileak, eta hauek Ertzaintzaren babesarekin sartu dira. Tensio



R. CALVO

tsio uneak egon dira, ertzain batzuk behintzat, nahiko aterata ibili direlako; baina bestela, ez da oztoporik egon. Gure ustez, Tolosaldean eta Goierri greba orokorra da.

### CCOO eta UGT akordio batera iritsi omen dira gobernuarekin.

Irratian entzun dut eta dirudieenez, erretiro adina 67 urtera atzeratuko litzateke akordio horren arabera. 38 urte eta erdi baino gehiago kotizatu dituenak berriz, 65ekin jubilatuko litzateke. Gazteak beraz, hemendik aurrera, ez dira iritsiko urte horietara. Inposaketa bat iruditzen zaigu, Euskal Herriaren aurkakoa. Eta inposaketa horretan, EAJ-PNVk zuzenean hartu du parte, bere jarraitzaileekin. PSOErekin bat egin du bere garaian PPrekin egin zuen bezala. Hori salatu beharra dagoela uste dut. Azken finean, euren negozioa da egiten duten apustu politikoa, eta berritzaile, Euskal Herriko langileen aurka jarri garbia azaldu dute.

Egoitz Iturbe • Tolosaldeko ELA sindikatuko ordezkarria

## «Erreformatik gizarteko arlo guztietan izango du eragina»

Donostiako manifestaziora joan aurretik, «gustura» zegoen ELAko ordezkarria grebaren jarraitzaileekin.

### Espero bezala joan da goiza.

Eskualdeko langileen erantzunarekin oso pozik gaude: enpresa garrantzitsuenak itxita daude, langileek piketeetan parte hartu dute... Orain, Donostian eta Tolosaldean egingo diren manifestazioetan parte hartze handia izatea espero dut.

### Komertzioak ere itxita ikusten dira.

Oro har horrela dela esango nuke, jende guztiak itxi duela. Azken grebetan enpresa handi eta txikiekin zentratu gara gehienbat, baina erreforma honek gizarteko arlo guztiak ukitzen ditu. Ondorioz, greban jende gehiago murgildu dela esango nuke, zabalagoa izan dela.



A. IMAZ

### Gazteengan eragin zuzena izango du erreformatik. Batzuk piketeetan egon dira.

Ikasleak piketeetan ibiltzeko ohitura gutxi dute oraindik. Nire ustez lantegian sartzen zarenean pizten zaizu grina hori. Baina lehen esan bezala oso pozik gaude

jasotzen ari garen erantzunarekin. Gazteak, helduak, emakumeak... erreforma honek denoi ukitzen digu. Ahaztu aurretik, CCOO eta UGTk erreforma sinatu dutela esan beharra dago. Hauek lotsarik ez dute, eta berriro ere argi gelditu da zeinek dauen eta zertarako dauen.

### Sindikatu bereziak, ezta?

Lotsagabe hauek, orain negozioz kolektiboaren erreforma egin nahi dute. Hor ikusten da argi zein den beraien benetako interesa. Sindikalismo guztia zentralizatu eta monopolizatu nahi dute. Baina guk argi dugu zein den gure esparrua eta gure eskubideak defendatzen jarraituko dugu. Langileak gurekin daudela ere argi gelditu da. Niri pena ematen dit sindikalista deitzea bi erakunde horiek ordezkatzen dituztenei.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** bertako egunkaria  
egin zaitetz harpidedun!  
**902-82 02 01**  
(Asteegunetan 09:30-20:30 / Larunbatetan 09:00-13:00)  
[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)  
eraman/bidaliz izen-emate orria:  
Arabako etorbidea 5 behekoa • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31860 Leizta

**hirukide**  
gaitzberri  
Jesuitak  
eskolak  
KALITATEZKO HEZKUNTZA  
TOLOSAN  
900 070 940  
[www.hirukide.org](http://www.hirukide.org)

## «Parte-hartzea eraikitzeko» herritarren arteko topaketa Tolosan

Herritarrak udaleko kudeaketan «partaide eragile» izatea da helburu nagusia

**Erredakzioa** Tolosa

Tolosako Udalak «herritarren partaidetza eguneroko jardunean txertatu» nahi du. Parte-hartze eredu bat aurkitzea «eraza ez den arren», eta guztion itxaropen, nahi eta beharrei erantzutea ere «zaila» denez, udalak «herritarrak udaleko kudeaketan eragile gisa txertatzeko, eraginkorra den lan esparrua adostea beharrezkoa» dela dio.

Hau dela medio, parte-hartze eredu berri bat proposatzeko topaketa bat antolatu dute otsailarako. Bertan parte-hartzearen alde onak eta txarrak, lortu nahi den partaidetza mota, parte-hartzeari buruzko proposamenak eta berau antolatzeko kontuan hartu beharreko elementuak eta edukiak ere eztabaidagai izango dira.

Topaketan iritzia eman nahi duen tolosar orok Herri Partaidetzarako Departamentuarekin harremanetan jarri beharko du otsailaren 1a baino lehen, 943 69 75 21 telefono zenbakiaren bidez nahiz [tolosa2015@tolosakoudala.net](mailto:tolosa2015@tolosakoudala.net) helbide elektronikora idatziz.

## ‘El Viaje a la Poligonia’ emanaldia bihar Topic-en, gaztetxoentzat

**Erredakzioa** Tolosa

Theatre pour deux mains talde frantziarrak *El viaje a la Poligonia* emanaldia eskainiko du bihar Topic-en arratsaldeko seietan, 2009ko irailean eskaini zuten estraineko ikuskizuna, Charleville-Meziereseko txotxongilo bidezko antzerkiaren mundu mai-

lako jaialdian. Panpinak bideo-proiektzioekin nahiz objektu desberdinekin uztartzen ditu hiru urtetik gorako haurrei zuzenduriko ikuskizun honek.

**Panpinen bidez irakatsiz**

Ikuskizunean, karratu bat baztertuta sentitzen da bere inguruko arteen, eta bidaia bat egitea

erabakitzen du. Bidaia horretan bere munduaz oso desberdinak diren inguruak ezagutzen ditu: trapezioenak, zirkuluenak, laukizuzenenak,... Modu honetara, txotxongiloen bidez haurrei poligonoen mundua aurkezten diete. Emanaldirako sarrerak kutxazainetan, interneten nahiz Topic-eko lehiatilan eskura daitezke.

## Osoko Bilkuran hitza ukatu izana salatzen du Ezker Abertzaleak

Herenegun iluntzean egindako batzarrean laugarren zinegotzi «lapur bat» izendatu izana ere gaitzetsi du

**Erredakzioa** Leaburu-Txarama

«Tentsio askoko» Osoko Bilkurak izaten ari dira azkenaldian Leaburu-Txaraman. Azkena, herenegun izan zen eta bertan, alkateztan dagoen alderdiak, Bide Berriak-ek, «Alderdien Legea baliatuz, laugarren zinegotzi bat, Manuel Enrique Gregorio, izendatu zuten», ezker abertzaleak salatu duenez. «Ohiko Bilkura ze-

nez galdera eta erreguak arte, itxaron genuen gure desadostasuna agertzen duen idatzia irakurtzeko, baina oraingoan ere hitza ukatu ziguten, gure idatzia aktan ez jaso.

Irakurri, irakurri genuen, baina alkateak Ohiko Bilkura jada bukatuta zegoela

esan eta ez zuten aktan jaso», argitu du.

Idatzian, besteak beste, laugarren zinegotziari karguari uko egiteko eta Jose Martin Deusto zinegotziaren zein Mari Cruz Agirre alkatearen dimisioa eskatzen du ezker abertzaleak.



Elkarretaratzea egin zuten Osoko Bilkura baino lehen. HITZA

## → Laburrak

### ‘Eutsi!’ filma gaur ikusgai, Irurako Kulturunean

**IRURA** > Gaur gauean zine emanaldia izango da Irurako Kulturunean, Ttipittapa gaztelekua-ren eskutik. Hemendik aurrera zine kluba hilabeteetan behin antolatzeko asmoa dute, eta emanaldiak doan izango dira. Gainera, ikusleek edaria nahiz palomita bertan erosteko aukera izango dute. Gaur gauean bertaraten direnek, Alberto Gorritiberearen *Eutsi!* filmaz gozatzeko aukera izango dute 22:00etan.

### Zuloaga Txikiko igogailuaren inaugurazioa

**TOLOSA** > Zuloaga Txiki auzoan igogailu berria eraiki dute. «Auzoko irisgarritasun baldintzak hobetzeko asmoz» burutu da obra, eta bihar goizean izango da inaugurazio ekitaldia. 11:00etan zinta moztu eta agurra dantzatu ondoren, hamaiketako banatuko zaie bertaratu-tako guztiei.

### Bularreko minbiziari buruzko hitzaldia

**TOLOSA** > Katxalin, Bularreko eta Ginekologiako Minbiziaren Emakumeen Elkarteak antolatuta, bularreko minbiziaren goiz detektatzearen inguruan hitzaldia eskainiko du Donostia-ko Onkologikoko Arrate Plazako doktoarak otsailaren 3an Kultur Etxean, 17:30ean.

# GIPUZKOAN LORTU ARTE AKORDIOA



Tolosan, urtarrilaren 29an

Topic-en, 12:00tan





## PILAR GOYA ESTETIKA ZENTROA

Maria Divil esteticos tratamientos

Errota 2, behea • Villabona  
Tel.: 943 69 13 66

- Diodo laserra (gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat)
- Aurpegi-tratamenduak
- Zimurren betegarri-tratamendua ama zelulekin:
- Urrezko xaflak
- Azalaren aholkularitza doan
- Oinen eta eskuen tratamendu eta edertasuna (irraupen luzeko esmalteak)
- Solarium bertikala, 10 minutu
- Solarium horizontala, 20 minutu
- Bainuen aurrekontua eskatu
- Depilazioa erabilera bakarrek argizariarekin



# GAMEOVER\_23

## 50 M-KO ZUNTZA

### INTERNETEN BIZI DIRENEK EUSKALTEL GOMENDATZEN DUTE

Bereziak direla pentsa dezakezu. Edo ameslariak direla. Heldugabeak, edo gogo askekoak. Ez dakite nola programatzen den garbigailu bat, baina satellite baten orbita berriro programatu dezakete. Batzuentzat, ez dira aldatu hamalau urte zituztenetik. Baina guk uste dugu etorkizuna direla. Izan ere, ez dabilza pauso bat aurrerago; **50 mega aurrerago dabilza.**



**euskaltel**  
zuretzat

 Zuntzaren indarra

Deitu **1717ra** - [www.internetenbizidirenak.com](http://www.internetenbizidirenak.com)



Asier Alonso (eskuinean) Aurrera Saiaz elkarteko Perezekin entrenatzen aste honetan Elorri frontoian. I. GARCIA

## Intxurre etzi lehiatuko da Berria Txapelketan

Zornotzako Lagun Onak elkartearen aurka jokatu du, 17:00etan, Alegiako Elorri frontoian

**Imanol Garcia** Pilota

Intxurre Pilota Eskolako Berria Txapelketako kanporaketa izango du etzi, Alegian. Usurbilen aurka lortu zuen txapelketan parte hartzeko txartela eta orain Zornotzako Lagun Onak elkartekoei aurre egin beharko dio. Elorri frontoian 17:00etan hasiko da neurketa eta hiru partida jokatu dira: kadeteak, jubenilak eta nagusiak. Intxurretik kadete mailan Larrea eta Mujika ariko dira, jubenil mailan Artola eta Zabala, eta nagusien mailan Alonso eta Esnaola.

Alegia, Altxo eta Ikaztegiatoko pilota elkarteek bat egin ondoren sortu da egungo Intxurre elkar- tea. Bertako arduradunetako bat den Jose Luis Zabalak azaltzen duenez, «guretzat gauzak ondo egiten ari garen seinale da Berria Txapelketan parte hartzea. Euskal Herriko 24 elkarte onenek parte hartzen dute eta, elkarte gaztea izanik, hor egotea garrantzitsua da guretzat».

Ez dituzte zornotzarrak ezagutzen. «Jubeniletan ez omen dute maila handirik. Ea kadete eta jubeniletan irabazteko aukera dugun eta tanto-kopuru handia lortzen dugun. Gero nagusiek borbildu beharko dute», azaldu du Zabalak.

Asier Alonso nagusi mailako aurrelari ikaztegiatarrak dioenez, «lehenengo kanporaketan, Usurbilen aurka, oso urduri jokatu genuen. Hobeto jokatu behar-

ko dugu Zornotzakoen aurka». Igandekoari dagokionez, «guk esperantza dugu kadeteek eta jubenilek irabazi egingo dutela eta hartara, guk lasaixeago jokatu genuke», dio Alonsok.

Ilusioa egiten dio aurrelariari Berria Txapelketa jokatzek: «Txapelketa garrantzitsua da». Elorri frontoian ari da entrenatzen aste honetan, Ikaztegiatoko arekin alderatuz, zorua motelagoa baitu eta igandeko partidari begira ohitzeko».

### Beste txapelketak

Bestalde, Euskal Herriko txapelketan Intxurrek Oberenaren aurka jokatu du gaur, Alegian 19:00etan hasiko den jaialdian. Udaberri txapelketako bi partida ere jokatu dituzte jaialdi horretan. Gaur azkenik, Udaberrikoan, hiru partida daude jokoan, 19:00etan hasita, Ikaztegiatan.

## Odriozola askatzeko eskatuko dute berriz biharko manifestazioan

**Erredakzioa**

Amnistiaren Aldeko Mugimendua deituta, Pello Odriozola preso askatzeko manifestazioa egingo dute bihar, 19:00etan, Tolosako Triangulua plazatik abiatuta, *Bizi osoko zigorrik ez* leloean. Gaur 23 urte betetzen ditu Odriozolak espetxean. Amnistiaren Aldeko Mugimendutik eskatu dute egungo egoeran «pausoak ematea» eta horietako bat «Pello Odriozola kaleratzea» izango zela gaineratu dute.

Bestalde, hileko azken ostirala izanik, euskal presoek elkartasuna adierazteko Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan elkarretaratzek egingo dituzte gaur.

↓ **Azken ostiralak**

**GAUR**

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Amezketeta.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 20:00etan.
- **Ibarra.** 19:30ean.
- **Ikaztegieta.** 20:30ean.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Orendain.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.
- **Leaburu-Txarama.** 20:15ean Txaraman.
- **Leitza.** 20:00etan Lopeneko biribilgunean.

## 'Gipuzkoan lortu arte!' ekimenaren aurkezpen publikoa, bihar Topic-en

**Erredakzioa** Tolosa

Gipuzkoako Ezker Abertzaleak eta EAK *Gipuzkoan lortu arte!* akordioaren berri emango dute bihar Tolosako Topic zentroko areto nagusian, 12:00etan hasiko den agerraldian. Euskal Herriari eta Gipuzkoako jendarteari «aldaketa politiko eta soziala» bultzatzeko eskaintza egin nahi diote. Aldaketa horretan independentzia hartzen dute erreferentzi moduan.

Akordioak hamar puntu juri-diko politiko berria; gatazkaren konponbidea; Euskal Herriatik Gipuzkoara, Gipuzkoatik Euskal Herrira; justizia soziala, garapen iraunkorra; berdintasunean oinarritutako jendartea; euskara eta kultura; migrazioa eta aniztasuna; hezkuntza, eta azkeneko puntuan, gazteria. Azaroan osatu zuten bi alderdiek akordioa eta orain eskualdez eskualde ari dira gizarteratzen.

### Hilberriak



#### JOXE ONDARRETXE ORMAETXEA

*Uda amaierako egun eguzkitsu batean joan zinen, ez genuen agurtzeko denborarik izan osaba. Baina han nonbait, urrunean, berriro elkartzean iritsi garela esateko kax-kax egingo dizugu, zuk egiten zenigun bezala, sukaldeko lehio ertzean.*

BERROBIN, 2011ko urtarrilaren 28a



#### MARIA ZUMETA MIMENDIA

Urtarrilaren 27an hil zen, 85 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren. - Goian bego -

Etxeko ilobak: M<sup>a</sup> Jesus eta Joxe Jauregi, Jexus M<sup>a</sup> eta Kris Vazquez, Rosa eta Joxe Antonio Oruesagasti, Juani eta Joxe M<sup>a</sup> Mendizabal, Joxe Angel eta Arantxa Altolagirre; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde, otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaiztetela, GAUR, OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Irurako SAN MIGEL GOIANGERUA parroki elizan GORPUTZA BERTANDELA, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

IRURAN, 2011ko urtarrilaren 28a

**Helbidea:** Kale Nagusia, 3-2. **Oharra:** Gorputz bella FUNERARIA ORIA TANATORIOAN egongo da hileta ordura arte.



#### LUCAS MERCHAN MARTIN

*Etxekoek saminarekin bat egiten dugu*

**Alkartasuna Lizeoa Herri ikastolako guraso, ikasle eta irakasleak**

BEASAIN, 2011ko urtarrilaren 28a

**HILETAREN BALIOA** Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskuraz gina da galdu dizuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA** EHOZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.  
**Anoeta/Aldea:** 687 410 022. anoetaaldea@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Ollarrea M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.

**BIHAR**

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria

**Agenda**

**MUSIKA**

- **Tolosa.** Hesian eta Nekez taldeen kontzertua gaur, 22:30etik aurrera Bonberenean.
- **Tolosa.** Dolce Tangana eta Atila y los Unos talde tolosarren kontzertuak bihar 22:00etatik aurrera Otsabin.

**ANTZERKIA**

- **Villabona.** Lakrikun antzerki taldearen *Greban gaude* antzezlan gaur, 22:30ean Gurra antzokian.
- **Villabona.** Ainhoa Alberdiren antzerki tailerra bihar 10:00etan Mintzolan.

**DEIALDIK**

- **Tolosa.** Urtarrileko azken larunbateko kantu-jirako entse-gua gaur 20:00etan Eduardo Mokoroa musika eskolan.
- **Tolosa.** Bihar 12:00etatik aurrera TOPIC-en *Gipuzkoan Lortu Arte*-ren aurkezpen ekitaldia.
- **Tolosa.** Pello Odriozola tolosarrak gaur betetzen ditu 23 urte kartzelan eta hori salatzekeo *Bizi osorako zigorriz ez!* lelopean manifestazioa izango da bihar 19:00etan Trianguloatik.

kalea, 3. 943 67 09 15.

- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.

**ETZI**

- **Tolosa.** Etxebeste J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.

**ASTELEHENA**

- **Tolosa.** Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
- **Leitza.** Erbiti O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**



**Zorionak!**

**Jokin.** Bat, bi, hiru, lau, bost, sei eta bihar, zazpi!  
Urte horiek dituen ez zebilek gaizki.

**ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA**  
**IKAS KOMUNITATEA**  
**PEDRO M<sup>o</sup> OTAÑO HERRI ESKOLA**

Pagamutu auzoa, 16 - ZIZURKIL  
Tel.: 943 691 478  
Posta elektronikoa: 012041aa@hezkuntza.net

**Aurrematrikulazioa:**  
Urtarrilak 31tik Otsailak 11 arte

**Sagardo naturala**  
**Eguneroko sagardoa**

**ISASTEGI**  
sagardotegia

Abada Txiki Auzoa - 20400 TOLOSA  
Tel. 943 692 964 - Fax. 943 695 632  
isastegi@isastegi.com  
www.isastegi.com

**Artisau Jogurtak**

**Mahala**

**PELLO ERROTA herri ikastetxea**  
Asteazu - Ekimendi s/2

**ASTASUNO ETA LARRAILGO ESKOLA**  
1.º urte hezkuntza (2-4 urte)  
Lan hezkuntza (5-12 urte)

**Aurrematrikulazioa:**  
Urtarrilak 31tik Otsailak 11 arte

**Publierreportajea**

# Koordinazioa eta Lankidetzeta Santa Lutzia guneko ardatz

Samaniego, Orixe, Tolosaldea Goi Mailako Institutua eta Tolosako Haurreskola publikoa biltzen ditu eskaintzak

**Erredakzioa** Tolosa

Hezkuntza guneko ikastetxeen arteko koordinazioa eta eskaintza publiko osoa gauzatzeko baliabideak dituztela dira Santa Lutzia hezkuntza guneko bereizgarri nagusiak.

Horrela, irakaskuntza euskalduna eta publikoa eskaintzen dutela ere nabarmendu behar da. Izan ere, gune berean 2 urte 18 urte bitarteko hezkuntza eskaintzen dute Samaniego ikastetxeak (2 urte 12 urte bitarte), Orixe institutuak (12 urte 18 urte bitarte) eta baita Tolosaldea Goi Mailako Institutuak (16 urte 18 urte bitarte) ere. Honi guztiari otsailen Tolosako erdigunean, Plaza Berrian, irekiko den Haurreskola publikoa gehitu behar zaiolarik.

Santa Lutzia gunean «hezkuntza laikoa, hezkidetzan oinarritua, anitza, kalitatekoa, integraziailea eta pedagogian berritzailea» eskaintzen dute.

Hauek dira ildo nagusiak:  
**Euskararen normalizazioa, ingurumenarekiko errespetua eta elkarbizitza positiboaren aldeko apustua** egiten duen Hezkuntza Proiektua gauzatzen dute.

**Gurasoen partaidetza bermatzen duena;** Guraso Eskola proiektua dute.

4 urtetatik ingelesaren irakaskuntza bermatzen dute; barnetegiak eta elkartrukatzak ere egiten dituzte, aurretik elkartrukatzea Holandako gazteekin egiten dute.

**Teknologia berriak garatzen dituzte;** Eskola 2.0 Egitasmoa.

Eskolaz kanpoko ekitaldiak eta Kirol Eskola egitasmoak dituzte.

**Kalitatezko jangela zerbitzua** dute; bere sukalde eta sukaldaria rekin.

Doako eskola garraioa eskaintzen dute.

**Lagunbuzia zerbitzua dute;** ikasturte honetan 50 ikasleek parte hartzen dute guraso talde baten laguntzarekin.

**Haur Txoko zerbitzua;** 07:30etik 09:00etara eta 16:30etik 18:00etara.

**Haur Hezkuntzako eraikina bioklimatikoa eta ekologikoa** dela nabarmendu behar da.

**Ahozkotasuna** lantzeko Mintzola eta bertsolaritza proiektuak martxan dituzte.

**Kompetentziak lantzeko:** beste erarte, irakaskuntza Kooperatiboa' eta 'Irakurketa Ulerkorra' proiektuak garatzen dituzte.

**Lankidetzeta tailerra dute;** eskualde guztiari zabalduko heziketa zerbitzu berezia.

DBN eta unibertsitateari begirako tutoretza eta orientazioa eskaintzen dute.

**Testu liburuen mailegu zerbitzua** ere badute.

**Matrikulazioa**

Samaniego eta Orixe matrikula epea hilaren 31n hasi eta otsailaren 11n bukatuko da. Era berean, **Samaniego** ezagutzeko bisitak egingo dituzte otsailaren 1ean eta 3an 16:45ean, horretarako, eta baita matrikula egiteko ere, 943 65 10 63 edo 688 60 33 51 telefono zenbakietara deitu behar da.

**Orixe** izena emateko berriz, 943 65 13 87 telefono zenbakira hots egin behar da. Gurasoekin ere bilera bat egingo dute otsailaren 2an 18:30ean.

